# EUSKAL HEDABIDEEN URTEKARIAK

10 ALE!

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10






DESKARGATU

< URTEKARI GUZTIAK WEBGUNEAN ESKURAGARRI behategia.eus/argitalpenak

10 ale hauetan ugariak izan dira Urtekarian landutako gaiak;
euskal hedabideei eta euskarazko komunikazioari lotutakoak denak.

# guztira 120 **artikulu**

Euskal Komunikazioaren gaineko bibliografiaren erretratua.

Euskal Hedabideen Urtekaria **2015**

Euskarazko tokiko komunikabideen egoerari begirada bat.

Euskal Hedabideen Urtekaria **2016**

Ikus-entzunezko Kontseiluaren eragina komunikazio-espazioaren eraketan: begirada bat Kataluniari.

Euskal Hedabideen Urtekaria **2017**

Euskal Herriko prentsa digitalean emakumezkoek zenbateko presentzia duten, testuen meatzaritza baliatuta.

Euskal Hedabideen Urtekaria **2018**

Euskarazko komunikabideak besteen bihotzetan: Facebook eta Instagram sareen su beroa.

Euskal Hedabideen Urtekaria **2019**

Itzulpen automatikoa: euskara hutsezko hedabideetatik euskara ardatz duen proiektu komunikatibo eleaniztunetara.

Euskal Hedabideen Urtekaria **2021**

Gazteen artean ikus-entzunezko kontsumoa astindu zuen birusa.

Euskal Hedabideen Urtekaria **2020**

Podcastgintzara zuzendurik antena.

Euskal Hedabideen Urtekaria **2022-23**

Euskarazko komunikabideen balio soziala: ARGIAren eta ALEAren kasu azterketak.

Euskal Hedabideen Urtekaria **2023-24**

Datuaren kultura euskal komunikabideetan: Hekimen elkarteko komunikabideen egoeraren analisi kuantitatibo eta kualitatibo bat.

Euskal Hedabideen Urtekaria **2024-25**

Urtez urte jasotzen du Urtekariak
Hekimen elkarteko hedabideen trafiko digitalaren

# neurketa eta **analisia**

**Iazko urtearen aldean, 2024an 370.476 bisita gehiago eskuratu dituzte neurtutako web orriek; hau da, % 0,92 hazi da Hekimen osoko web trafikoa.**

Bosturteko perspektibaz begiratuta, 2019tik 2024ra bitarteko tartean hazkunde nabarmen bat gertatu da: pandemia aurretik gaur arte % 42,46 hazi da euskal hedabideen trafikoa, eta pandemiaren urteko piko historiko hartan erregistratutako ezohiko datutik —2020. urtean 40,8 milioi bisitako markara heltzetik— oso gertu mantentzen da azken bi urteetan datua —2023an ia 500.000 saiora eta 2024an 128.000 pasatxora—. Hau da, alterazio hark hazkunde bat eragin zuen gerora eutsi dena; 0,3 puntu portzentualekoa baino ez da aldea aurtengo datua 2020arekin alderatuz gero.




Hauxe aurtengo analisiaren lagin bat baino ez da.
Hemen aurkituko duzu artikulua osorik:
*https://behategia.eus/eu/urtekaria/urtekaria-2024-25/*

10 ale hauetan jasotako

# zenbait lerro **esanguratsu**



## Lorea Agirre Dorronsoro

Euskal Hedabideen Urtekaria 2015

*“ Hizkuntza txikien massmediazioaren beharraren arrazoia politikoa da, merkaturik izatea edo ez izatea ez da baldintza erabakigarria euskarazko hedabideak egon behar duten edo ez erabakitzeko. Euskarazko hedabide baten funtzio, balio eta izatea ezin da neurtu merkatu kuotetan. Merkatuak bere garrantzia du, baina merkatua «fabrikatu» egin behar da, audientzia fabrikatu behar den bezala. Ekosistemaz ari gara, azken finean. Zaintzeaz, landatzeaz, ereiteaz, elkar elikatu, elkar erreplikatu, elkar erreferentziatu eta elkar komunikatuko duen euskal hedabide esparru bat eratzeaz, komunitatea eta komunitatekideak ‘fabrikatu’ ditzagun ”.*



## Libe Mimenza Castillo

Euskal Hedabideen Urtekaria 2016

*“ Euskal Hedabideen inguruko hausnarketak bideratzeko gunea da Behategia, askotariko begirada osagarriz sektorearen taupadak neurtu eta interpretatuko dituen antena. Horixe da, ezer baino lehen, urte honetan nabarmendu behar dugun mugarria: Hekimen Euskal Hedabideen elkartearen, Euskal Herriko Unibertsitatearen, Mondragon Unibertsitatearen eta Deustuko Unibertsitatearen artean (UEU ere batuko zaie gero) 2016ko urtarrilean sinatutako hitzarmenaren ondorioz jaio den Behategia ”.*



## Josu Amezaga Albizu

Euskal Hedabideen Urtekaria 2017

*“ [...] euskal komunikazio espazioaz hitz egitean, euskara hutsezko komunikabideei soilik begiratu behar diegu, inguruan dagoen komunikazio panoramari gehiegi erreparatu gabe, ala begirada orokorragoa behar dugu, eta maila orokorrean eragin? [...] Hortik eratorritako komunikazio politikak, bestalde, harreman estua izan behar du beste politika batzuekin: ez soilik hizkuntza politikarekin, baita kultura eta hezkuntzarekin ere. Eta, erakundeei dagokienez, pisu politikoa izan beharko du eraginkorra izango bada. Kanpo Ekintzaren arloak Sailburuordetza bat duen bitartean Komunikazioak antzeko figura bat ez edukitzea ez baita ulertzen erraza ”.*

## Igor Astibia Teiletxea

Euskal Hedabideen Urtekaria 2018



*“ [Dirulaguntza publikoen] eredu berri honen helburu nagusia euskarazko hedabideei egonkortasuna bermatzea eta baldintza duinagoak ahalbidetzea da eta, ondorioz, honekin ez dira bukatzen sektorearen arazoak. Egonkortasuna bermatzera datorren neurri hau bestelako erronkei erantzuten hasteko ezinbesteko pausoa da, hortaz pauso garrantzitsua baina edozein kasutan, lehen pausoa baino ez. Aurrerantzean sektorearen beraren beharretatik zein euskararen normalizazioaren ikuspegitik abiatuz eman beharreko urrats berrien inguruan hausnartu beharko da ”.*



## Estibaliz Alkorta Barragan

Euskal Hedabideen Urtekaria 2019

*“ «Euskal komunikazioaren ituna», «Euskarazko hedabideen finantzaketa marko berria» edo «Babes eredu berria hedabideen arloan». Horrelako titularrak erabili zituzten euskal hedabideek 2019ko martxoaren 4an hedabideen sektoreak, aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak egin genuen prentsaurrekoa islatzeko. Agerraldi hartako argazkia bi urte baino gehiagoko lanaren ondorio izan zen, eta aldi berri bat ireki zuen euskarazko hedabideen eta instituzioen arteko harremanari dagokionean. Adostasuna, konplizitateak eta hainbat urrats erabakitzaile behar izan ziren akordioa burutzeko ”.*



**Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute**

Euskal Hedabideen Urtekaria 2020

*“ COVID-19ak erakutsi du elkarlana tresna ahaltsua dela jakintza eta kultura zientifikoa zabaltzeko. Benetan eraginkorra suertatu da euskarazko hedabide espezializatuen eta orokorren arteko lankidetza. Kalitatea eta gertutasuna bermatu ditu uneoro, eta uste osoa dugu etorkizunerako eredu eraginkorra sortu dugula. Horrek, ordea, euskarazko hedabide espezializatuen jarduna eta egoera berraztertzera behartzen gaitu. Izan ere, egoera ekonomiko gogorra bizi dute gehienek ”.*



**Joseba Sarrionandia Uribelarrea**

Euskal Hedabideen Urtekaria 2021

*“ Espainiar nazionalismoak lortu du hegoaldeko euskaldun ia guztien erreferentzia kultural eta politikoak espainolak izatea. Iparraldeko jendea, berriz, komunikazio esparru frantsesean bizi da murgilduta. Euskalduna egundo baino espainolagoa da alde horretatik, ala egundo baino frantsesagoa, berez antiespainolak eta antifrantsesak izanda ere borondate politikoz. Oso minoritarioa da komunikazio esparru euskalduna, eta subalternoa da gainera, euskaldun horien gehienen bigarren logosfera delako. Esaten digute ja mugarik gabeko munduan gaudela. Eta egia da, igual. Baina gezur handia ere bada aldi berean. Hemen Espainia existitzen da eta hor Frantzia existitzen da, kartografia seguruekin, hizkuntza bakarrarekin, errealitatea sortzeko agendekin ”.*



**Itziar Laka Mugarza**

Euskal Hedabideen Urtekaria 2022-23

*“ Gure mende berri hau adimen artifizialaren iraultzarekin dator, hizkuntzak kudeatzeko lanabes digitalen garaia da. Euskaldunok euskara maizago erabil dezagun lortzen badute, diglosia digitaletik gordeko bagaituzte, ongi etorriak izan bitez. Euskaldun batek euskaraz jardun ahalko badu, ‘arrain elektrikoek’ itzultze lan gehiena egingo badute, horrek euskararen erabilera handituko du. Digitalizazioaren garaiak ez gaitu ahulegi harrapatzen, batez ere munduko beste hizkuntza txikietara begiratzen badugu, baina ez dago galtzeko denborarik, euskararako ‘arrain elektrikoek’ baditugu, baina ezin gaitezke geroko geroetan ibili. Olatu digitalak tsunami batek bezala joko ez bagaitu ezagutzaren puntan egon behar dugu, ezagutza etengabe sortzen, jasotzen eta zabaltzen. Banago lortuko dugula ”.*



**Lander Arretxea Bereziartua**

Euskal Hedabideen Urtekaria 2023-24

*“ Euskarazko hedabideek jorratzen dituzten gaiek edo haizatzen dituzten iritziek badute interesa hizkuntza gaitasunak urruntzen dituen beste askorentzat ere. Itzulpen automatikoa izan daiteke bide bat, estrategia egokiarekin, haiek erakartzeko euskara oinarri duen komunitate baterantz. Edo komunitate ugarietako zenbaitetarantz, hobe esanda. Euskal hedabideak ez baitira euskarazko hitzen biltegia soilik, bizi dugun aldiaz toki eta begirada jakin batzuetatik hitz egiten duten bozgorailuak dira. Asmatuz gero, gure erreferenteek, gaiek eta ikuspegiek herrikide gehiagorenganaino egin ahal izango dute bidea, trukean euskarazko edukiari baliabide edo espazio gutxiago eskaini beharrik gabe ”.*



**Nerea Azurmendi Zabaleta**

Euskal Hedabideen Urtekaria 2024-25

*“ [...] Jarrera eraikitzaileago baten aldeko hautua egin daiteke, eta pentsatu euskalgintzan zein beste esparru batzuetan aldaketa-zantzu argiak sumatzen diren honetan areagotu egingo direla aurrera egiteko aukerak, euskarazko hedabideei emango zaiela behingoz dagokien tokia. Aitortuko zaiela, alegia, daukaten balio estrategikoa, dela euskararen normalizazioan, dela beste alor batzuetan. Eta aintzatespen horrek izango dituela ondorio praktikoak. Bada garaia. Orain da garaia, berandu baino lehen ”.*

# **Kolaboratzaile** andana

Urtekari hauetan guztietan parte hartu duten Unibertsitate, Ikerketa talde, hedabide, elkarte eta autoreen izenak batuz gero, 230etik gorako erakunde eta pertsonen zerrenda osa genezake.

## Unibertsitateak

**Euskal Herriko Unibertsitatea**

**Mondragon Unibertsitatea**

**Deustuko Unibertsitatea**

**Udako Euskal Unibertsitatea**

## Ikerketa taldeak

**NOR** Ikerketa Taldea, EHU

**Hezikom** Ikerketa Taldea, MU

**HEKA** Ikerketa Taldea , EHU

**Emakumeen Ikusgaitasuna Hedabideetan** Ikerketa Taldea, EHU

**Hedabideak, Gizartea eta Hezkuntza** Ikerketa Taldea, EHU

**Gureiker** Ikerketa Taldea, EHU

**HUHEZI,** MU

**Euskal Gaien Institutua,** DU

**Applika+** ikerketa proiektua, EHU

**Solidary** ikerketa proiektua, EHU

## Elkarlanak

**Wikilarien Elkartea**

**Elhuyar Fundazioa**

**Pantailak Euskaraz**

**Gaindegia**

**Librezale**

**Euskaraldia**

**CodeSyntax**

## Autoreak

Ainara Larrondo Ureta
Ainhoa Etxebeste Arruabarrena
Ainhoa Jauregi Cabezon
Ainhoa Larrañaga Elorza
Ainhoa Oiartzabal Azketa
Ainoa Santisteban Rendo
Aintzane Ariztegi Barrenetxe
Aitor Zuberogoitia Espilla
Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute
Alaitz Artolazabal Amilleta
Alazne Aiestaran Yarza
Alberto Barandiaran Amillano
Alex Altuna Tojal
Alexander Aginagalde Lopez
Amagoia Mujika Tolaretxipi
Amaia Alvarez Berastegi
Amaia Pavon Arrizabalaga
Amaia Perez de Arriluzea Madariaga
Ana Galarraga Aiestaran
Ander Bolibar Zabala
Andoni Iturbe Tolosa
Andrea Aramburu Goienetxea
Andres Gostin Elorza
Ane Martinez Juez
Ane Urkola Agirrezabala
Antxoka Agirre Maiora
Arantza Gutierrez Paz
Asier Amezaga Etxebarria
Asier Iturralde Sarasola
Asier Otxoa de Retana
Bea Narbaiza Amillategi
Beatriz Zabalondo Loidi
Beñat Murillo Etxebarria
Blanca Miguelez Juan
Borja Lopez Cardenas
Carme Ferré-Pavia
Edorta Arana Arrieta
Edurne Benito del Valle Fernandez
Eneko Bidegain Aire
Eneko Iriondo Azpiri
Elin Haf Jones
Elixabete Larrinaga Artetxe
Estibaliz Alkorta Barragan
Gaizka Sanchez Saavedra
Galder Gonzalez Larrañaga
Garazi Goia Imaz
Garazi Sanchez Murciano
Goiatz Oiartzabal Lakarra
Gorka Salces Alcalde
Gorka Zabaleta Lopetegi
Guillermo Gurrutxaga Rekondo
Hibai Castro Egia
Helios Del Santo
Ibai Aguirrebarrena Mendiboure
Iban Iñaki Lantxo
Igor Astibia Teiletxea
Imanol Esnaola Arbiza
Imanol Murua Uria
Iñaki Zabaleta Urkiola
Ion Telleria Barrena
Iraia Oteiza Jauregi
Iraitz Gesalaga Fernandez
Iraitz Madariaga Etxebarria
Itsaso Manias Muñoz
Itxaso Fernandez Astobiza
Itziar Azpeitia Iruretagoiena
Itziar Laka Mugarza
Itziar Zorita Agirre
Izar Mendiguren Cosgaya
Jesús Ángel Pérez Dasilva
Jexuxmari Zalakain Goikoetxea
Jon Iriarte Mendiola
Jone Guenetxea Arrinda
Jordi Morales i Gras
Joseba Sarrionandia Uribelarrea
Josu Amezaga Albizu
Josu Azpillaga Labaka
Josu Aztiria Urtaran
Juan Kruz Lakasta
Julen Orbegozo Terradillos
June Ansa Agirre
Karolina Sainz de Bikuña Irigoien
Koldo Diaz Bizkarguenaga
Lander Arretxea Bereziartua
Leire Lasa Goiri
Libe Mimenza Castillo
Leire Palacios Egiguren
Lorea Agirre Dorronsoro
Maialen Goirizelaia Altuna
Maider Arrocha Herrero
Maite Egia Gutierrez
Maite Reizabal Arregi
Maria Gorosarri Gonzalez
Marian Gonzalez Abrisketa
Marijo Deogracias Horrillo
Marko Txopitea
Menane Oxandabaratz
Mikel Irizar Intxausti
Mikel Lizarralde Asurmendi
Mikel P. Ansa
Miren Manias Muñoz
Miren Mindegia
Naia Aizpurua Garro
Naia Laka Arrizubieta
Naroa Burreso Pardo
Natalia Arteche Cerrato
Nerea Azurmendi Zabaleta
Nestor Atxikallende Bilbao
Niko Cuenca Beristain
Nikolas Xamardo Gonzalez
Oier Markotegi Zubillaga
Oihane Agirre
Orreaga Zabaleta Ikatzeta
Pantxika Maitia
Patxi Azpillaga Goenaga
Pilar Kaltzada Gonzalez
Rebeka Garai Basterretxea
Simón Peña Fernández
Tania Arriaga Azkarate
Teixa Ihidoy
Txema Egaña Osa
Txema Ramirez de la Piscina
Udane Goikoetxea Bilbao
Unai Iparragirre Torres
Urko Peña Alonso
Urtzi Odriozola
Urtzi Urkizu Adrian
Uxue Morales Elorza
Xabier Arauzo Uriarte
Xabier Landabidea Urresti
Xabier Perez Vitoria
Xabier Saralegi Urizar
Ziortza Alvarez Gandiaga
Zuhaitz Beloki Leitza
Zuriñe Maguregi Sanchez

137!!

# Hedabideak:

28 KANALA | AIARALDEA | aikor. | AIURRI | aizu! | Talea

amezti | anboto | ARGIA | ataria | arrosa irratien sarea | bada

BADOK | barren | bat Soziolinguistika Aldizkaria | begitu 20 | berria | Berriketan

BERTSOLARI ALDIZKARIA | bidaiari | dantzan bizi gara | DROGETEN ITTURRI | eitb | elhuyar aldizkaria

enpresaBIDEA | erran.eus | ek! eta kitto! | euskalerriairratia.eus | Euskal Irratiak | GAUR8

gaztea | gaztezulo | Geuria | GITB | goiberri | goiena

GUKA | hamaika | hedabideak BASQUE COMMUNICATION | hekimen | herria | hh hik hasi

hiruka Prentsa euskaraz, pentsa euskaraz | HITZA | ikusgela | IPAR EUSKAL HERRIKO HITZA | IRRIEN LAGUNAK | Jakin dabilen pentsamendua

KANALDUDE | Kronika | MAILOPE | naiz: irratia | noaua | OIZMENDI TELEBISTA

Otamotz | PRIMERAN | Sustatu | ttap Irakurri, ukitu, ikusi, entzun. | TOKIKOM | txintxarri

Uriola | uztaro | zinea | Z | ...

behategia
EUSKAL HEDABIDEEN BEHATOKIA




Euskarazko komunikabideak
eta komunikazioa ditu ikergai
Behategiak.

Gaian sakontzeko,
sartu gure webgunean:

**behategia.eus**

edo harpidetu gure buletinera
***behategia@behategia.eus***
helbidera mezua igorriz.

Partaideak:

hekimen EUSKAL HEDABIDEEN ELKARTEA · Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea · Deusto Deustuko Unibertsitatea · MONDRAGON UNIBERTSITATEA Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea / Facultad de Humanidades y Ciencias de la Educación · ueu

Erakunde babesleak:

EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO Kultura eta Hizkuntza Politika Saila / Departamento de Cultura y Política Lingüística · Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa · ORAIN GIPUZKOA · EURORÉGION EUROESKUALDEA EURORREGIÓN